



AKTA
Udaleko Euskara Kontseilua
2021eko apirilaren 20a

BATZARKIDEAK

Mikel Uriguena, presidentea (Herriaren Eskubidea)
Ane Abanzabalegi Areitio, EH Bilduren ordezkaria
Malen Urkullu Arieta-Araunabena, EAJren ordezkaria
Jessica Ruiz, PSE-EE PSOEn ordezkaria
Mariam Bilbatua, EH Bilduren ordezkaria
Maite Euba Areitioaurtena, Udal Euskaltegiko zuzendaria
Gotzon Gomez Barrenetxea, Gerediaga elkarteko ordezkaria
Mertxe Mujika, Abarrak AEK-ko ordezkaria
Goiatz Etxeita Agirre, Ibaizabal Ikastolako ordezkaria
Markel Sanchez Zelaia, Berbaroko kudeatzailea
Jone Guenetxea Arrinda, Anbotoko zuzendaria
Ametz Menika Bernas, euskara trebatzailea
Fernan Ruiz Larringan, euskara dinamizatzailea

IDAZKARIA

Juan Antonio Atutxa Balentziaga, euskara teknikaria

EZIN ETORRI IZANA adierazi dute:

Neskutz Rodriguez Ormazabal, Herriaren Eskubidearen ordezkaria
Aitzol Gaztanazatorre Gorritxategi

Tokia: Berbagunea (Udal Euskaltegia)

Hasiera ordua: 18:00

Amaiera ordua: 19:10



Aurkezpena

Hasteko, batzarkideak elkar ezagutzeko erronda egin dugu, bakoitzak bere burua aurkezteko. Ondoren, Mikel Uriguenak azaldu du Euskara Kontseilu berria eratzekeo batzarra dela gaurkoa. Bera izango da Kontseiluko presidentea, alkateak hala izendatuta. Euskara Kontseilua Udaleko Herrigintza Batzordeari atxikita dago batzorde aholku emaile gisa.

1. Funtzionamendu araudia azaltzea

Araudiaren puntu garrantzitsuenak aipatu ditu Mikelek: Kontseiluaren funtzioak, osaera, parte hartzea eta egitura.

Kontseilukide izango gara bertaratu garenok: udaleko ordezkari politikoak, udaleko euskara teknikariak, pertsona juridikoak (elkarte, erakunde edo fundazioetako ordezkariak) eta pertsona fisikoak (nor bere buruaren ordezkari).

Eskaria	- Markel: ezohiko batzarretan, gai bati buruzko iritzia eskatzeko adituak gonbidatzen ditugunean, aldez aurretik jakinarazi batzordekideoi, gai zerrendan zehaztuta.
----------------	--

Egitekoak	- Kontseilukide izateko, parte hartzeko, eskaera egin behar da. Bertaratu direnei eskaera-orria bidaliko diegu, izenpetuta bidali diezaguten. - Kontseilukideen izendapena Kontseiluko presidenteordeak egingo du.
------------------	---

2. Aztergaiak

- Euskara sailaren 2021eko jarduerak eta aurrekontua:
[Euskara Sailaren web gunea](#)ren berri eman du Tonik. Euskararen ataria honetan urterik urteko euskararen aurrekontuak, planak, dirulaguntzak, ekimenak, agenda eta berriak ematen dira. [2021eko aurrekontuak](#) erakutsi eta azaldu ditu Tonik.
- [Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Araudia](#) (2010 urtea)
Duela 11 urte onartu zuen udalak gaur egun indarrean dugun araudia, EAEn orduan geneukan legedian oinarritutakoa. Baina, 2019tik, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzen duen [179/2019 Dekretua](#) dugu indarrean. Beraz, gaurko batzarrera Euskararen Udal Araudia aldatzeko proposamena ekarri da, momentuz zirriborroa baino ez dena eta artxibo erantsi moduan atxiki zaiona akta honi. Azalpenak eman ditu Tonik.

Iritziak	<u>Mertxe</u> : udalak beharrezko du euskararen araudia izatea, baina garrantzitsua da araudia betetzen dela ziurtatzea. Tresnak jarri behar dira onartutakoa neurtu eta betearazteko. <u>Maite</u> ere ados dago Mertxek esandakoarekin. <u>Gotzon</u> : Araudiaren artikuluei adierazleak edo neurgailuak jarri ahal dizkiogu ebaluaketa egin eta, hala behar denean, neurri zuzentzaileak ipintzeko.
-----------------	---



Egitekoak	Hurrengo batzarrean araudia lantzen hasiko gara: 1. eta 2. puntuak aztertuko ditugu.
------------------	--

- Kontseilukideen proposamenak aurrera begira

Egitekoak	Kontseiluan zein gai landu eta zein dinamika izango dugun adostu beharko dugu hurrengo batzarrean.
------------------	---

Batzarrak astearteetan, 18:00etan, Berbagunean egitea adostu dugu. Iraupena: Ordu eta erdi (18:00 – 19:30). Maiztasuna oraindik ez dugu zehaztu; araudiak bi hilerik behin egitea zehazten du. Hurrengoan aztertu eta erabakiko dugu.

Hurrengo batzarra: maiatzaren 4an, 18:00etan, Berbagunean.